

## Espainia “navarrizatua”



Iván Giménez  
KAZETARIA  
@IvnGimenez

**ruña, 1996.** Javier Otano Nafarroako presidentearen kontu suitzarrak *Diario de Navarra*-ren portadan ageri da, eta egun gutxira PSNren behin-behineko arduradun nagusiaren ahotsa (Pérez Calvo gaixoa, denon burutik aspaldidanik ahaztua): “Gaur egun, UPN da Nafarroa modu hobekien ordezkatzeko duen alderdia”. Beraz, alderdi batek beste alderdi bat hobea dela esanez. Hau da marka! PSNren labela, azken finean.

**Madril, 2016.** Felipe Gonzalezen sententzia definitiboa: “PP eta Ciudadanos-en gobernuak hoberena da Espainiarentzat, PSOEren abstentzioarekin”. Egundak batzuk geroago, *Salvados* telebista txundigarria, Esperanza Aguirre eta Josep Piqué: “PPk erraztu behar du PSOE eta Ciudadanosen arteko gobernu bat”.

**Bi eszenatokien artean, 20 urte, 400 kilometro,** protagonista ezberdinak. Hala ere, asmo bera, beldur bera, irtenbide bera. Nafarroan, 1996 hartan sortu zen gaztatxoaren teoria (Miguel Sanzen hitzak baimenik gabe erabiliz). Espainian, aldiz, koalizio handiaren oinarriak gaur finkatzen ari dira. Gaztatxoaren koalizioa? Teoria handia? Espainia “navarrizatua”?

Nafarroan, orain dela 20 urte, betidanik agindu dutenak konturatu ziren kontuak ez zitzaizkiela betiko aterako, eta gaztatxoaren teoria sasizientifiko

fikoa baliatuz, basko-gaiztoak Diputazio Jauregitik urrun mantentzeko hil ala biziko helburuari ekin zioten. Zelai-jokoa hain modu zorrotzez markaturik, ez zuten kontuan hartu beste aldean utzitako gunea erabat askea geratzen zela, *Corralito foralaren* kanpoan zeuden esku. Gune aske hura ez zen beste munduko gauza, jokalaria ahul gutxi zeuden eta elkarren artean ezinikusiak. Gune askea, baina ez hutsik, orduan.

Denboraren poderioz, zelaiaren alde bera partekatetik ustelkeria eta bezero-sareak elkarrekin kudeatzera igaro ziren, helburuak nahasiz eta izaera bera eta banaezina bihurtzeraino: UPPSN. Alta, 1996ko gune aske eta basamortu hartan gero eta jende gehiago zegoen, haserreago, indartsuago... ahulduak izatetik ahalduak egotera, gaztatxoaren teoriari esker: bat bitan banatu zuten, eta bigarren zati hura gazta erdia baino gehiago izatera iritsi da. Ez bat-batean, ez oso azkar, ez oso seguru... Ez betiko?

Bilakaera horrek ez ditu 20 urte beharko Espainian gertatzeko, askoz azkarrago doalako, premia handiagoa dutelako, ezin zakarragoak direlako. Deabruak serio demonio datoz, ziztu bizian, Kongresuaren ateak birrinduz, mototsak, rastak eta kamisetak erakutsiz.

Lotsarik gabe.

Munduko gauzarik arruntena balitz bezala.

Kaletik baletoz bezala. ■

## Ornitologiaz



Edu Zelaieta  
IDAZLEA

**A**rabako Natur Institutuko kide den Briani aditu diot datua: hegazti migratzaileen %80 hiltzen dira bidaian; %20k bakarrik lortzen du udaberria berriz ikustea. Urtero egiten dute bidaia hegazti horiek, bizitzeko giro goxoa baten beharrez, eta heriotza topatzen dute gehienek. Migratzea bizirik irauteko estrategia bada ere, oso garesti ordaintzen dute neguaz bialdeko pasaporteak: hamarretik zortzi gelditzen dira bidean.

Datu zehatzik eskaini gabe, antzeko mezua eman nahi izan bide die Donald Tusk-ek Europaz kanpoko migratzaileei: “Do not come to Europe”.

Ez genekien –neuk behinik behin ez nekien– zoologiaz eta, are gutxiago, ornitologiaz jantzia zenik Europako Kontseiluko presidentea. Ez arriskatzeko sosa eta bizia aholkatu baitu, kasik tonu neutro batez agintzeraino. Ez egiteko alferreko saiakerarik: “It is all for nothing”.

Ezagutzen genuen euskaldunok, Mikel Laboaren ahotsean bereziki, Joseba Sarrionandiaren hegazti errarien paradoxa, leihoan pausatutik, argia eta itzala bereizten diren lekuan. Argia eta itzala pausatu dira Europak espres jarritako hesian, errefuxiatuak eta migratzaile ekonomikoak bereizten diren lekuan. ■